3 hilabete baino gehiago / <i>Más de tres meses</i>	12,4	9,7	12,9	11,4
Ez da zehaztu / <i>No consta</i>	6,2	7,7	6,6	6,9

Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familiar). I.E.T. 2003-2004.



Gutxi aldatu dira euskal herritarrek turismo-bidaiak egiteko eman dituzten arrazoiak. Aurten ere oporrak eta aisialdia dira bidaiatzeko arrazoi nagusiak (%73); halaber, aurten ere Estatuan lortutako portzentajea (%68) gainditu da.

Arrazoi nagusi hori aztertuz, kirola, kultur turismoa edo mendian zein hondartzan atsedean hartzea dira egiten diren aukerak. Ildo horretan, mendian zein hondartzan atsedean hartzea da euskal turismo-bidaiak eragiten dituen arrazoi nagusia. Hain zuzen, aisialdia edo oporrak igarotzeko egindako bidaiak guztien % 43 dira; horren parean, %18 dira kultur turismoak eragindako bidaiak eta %7, azkenik, kirola egiteko bidaiak. Amaitzeko, bidaien %32 aisialdia igarotzeko bestelako arrazoi batek eragindako bidaien multzoan sailkatu dira.

Aurreko urteetan bezala, oraingoan ere senideak edo lagunak bisitatzea da bidaiatzeko bigarren arrazoi nagusia (%21); lana eta negozioak dira, bestalde, bidaien %5en arrazoiak, Estatuan lortutako portzentajearen parean (%4,8).

Haatik, arrazoiaren garrantzia aldatu egiten da bidaiatzeko aukeratzeko den autonomia-erkidegoaren arabera.

Las razones que llevan a la población vasca a realizar viajes turísticos, apenas cambian. Un año más las vacaciones y el tiempo de ocio es el motivo más señalado (73%) y también, un año más, en mayor proporción que en el Estado (68%).

Un desglose de este motivo en opciones más concretas como son la práctica deportiva, el turismo cultural o el descanso en campo y playa pone de manifiesto que éste último (descanso en campo y playa) es el primer incitador de los desplazamientos turísticos de los vascos. Concretamente suponen un 43% de todos los desplazamientos realizados por ocio o vacaciones frente a un 18% otorgado al turismo cultural y un 7% a la práctica deportiva. El 32% de estos viajes por vacaciones tienen otro motivo de ocio no especificado.

Al igual que otros años, la segunda razón para viajar son las visitas a familiares y amigos (21%) mientras el trabajo y los negocios originan un 5% de los desplazamientos, porcentaje éste similar al obtenida en el Estado (4,8%).

Ahora bien, la importancia de los motivos varía según las CC.AA. de destino.

Turismo-bidaien arrazoiak Motivos de los viajes turísticos


Euskal herritarren bidaien % 73 oporrak edo aisialdia igarotzeko egiten dira.

Talde horretan, bereziki azpimarragarriak dira hondartzara eta mendialdera egiten diren bidaiak (% 43).

Las vacaciones y el ocio motivan el 73% de los desplazamientos turísticos de los vascos.

Dentro de este grupo destacan sobre todo los que van a la busca del descanso en playa y campo (43%).

Euskal herritarrek egindako turismo-bidaien arrazoiak eta Estatuarekiko konparazioa. 2004
Motivo de los viajes turísticos realizados por los vascos y comparación con el Estado. 2004



Gaztela eta Leon eta EAE dira euskaldunek senideak eta lagunak bisitatzeko bidaiatzen duten bi erkidego nagusiak. Valentziako Erkidegoa, Kantabria, Katalunia edo Asturias gehiago dira oporrak igarotzeko aukeratzen diren noranzkoak.

Castilla y León y el País Vasco son las principales Comunidades a las que se dirigen los vascos para visitar a familiares y amigos mientras a Comunidad Valenciana, Cantabria, Cataluña o Asturias se acude sobretudo por vacaciones.

Gaztela eta Leon da euskaldunen turismo-bidaien noranzko nagusia (%16). Hala ere, proportzionalki gutxiago aipatzen da oporrak igarotzeko (%57) eta gehiago senideak edo lagunak bisitatzeko (%41).

Gauza bera esan daiteke euskaldunek EAera egiten dituzten bidaiak aztertzean (egindako turismo-bidaien %10), izan ere, ugaritu egiten dira senide eta lagunak bisitatzeko egindako bidaiak (%49) eta gutxiago dira oporrak igarotzeko egindakoak (%46).

Hala ere, Valentziako Erkidegoa zein Kantabria (Euskadin egindako turismo-bidaien %11 eta %10eko kuotak, hurrenez hurren) dira oporrak igarotzeko gehien aukeratzen diren autonomia-erkidegoak: egindako turismo-bidaia guztien %85 eta %80 hurrenez hurren. Zentzu horretan, azpimarragarriak dira halaber: Balearrak (%100), Gaztela-Mantxa (%89), Asturias eta Kanariak (%88), Andaluzia eta Aragoi (%84) eta Katalunia (%81).

Madril dugu, aurtan ere, lanaren ondorioz egindako bidaien noranzko nagusia (%22), eta ondoren daude Nafarroa (%12), Kanariak (%11) eta Andaluzia (%7).

Castilla-León, en cuanto primera comunidad de destino de los viajes turísticos de los vascos (16%), es proporcionalmente menos señalada para vacaciones (57%) y más como un lugar al que se va para visitar a familiares y amigos (41%).


Esta circunstancia es también extensiva al País Vasco cuando es considerado como destino de los propios vascos (10%) de los viajes turísticos realizados, ya que también aumentan las visitas a familiares y amigos (49%) y disminuye el motivo vacacional (46%).

Sin embargo, tanto la Comunidad Valenciana como Cantabria (con una cuota del 11% y 10% respectivamente de los viajes turísticos realizados en Euskadi) constituyen destinos mayoritariamente vacacionales, con porcentajes del 85% y 80% de los desplazamientos realizados. En este mismo sentido destacan igualmente Baleares (100%), Castilla-la Mancha (89%), Asturias y Canarias (88%), Andalucía y Aragón (84%) y Cataluña (81%).

Madrid, un año más aparece como el destino con más desplazamientos realizados por motivos de trabajo (22%), a la que sigue Navarra (12%), Canarias (11%) y Andalucía (7%).

Desplazamenduetan erabilitako garraiobidea

Medio de desplazamiento




Automobila da euskaldunek turismo-bidaiak egiteko gehien erabiltzen duten garraiobidea (%78), eta, aurtan ere, Estatuan lortutako emaitza (%74) gainditu da arinki; hala ere, Estatuan portzentaje altuagoak lortu dira hegazkinaren (%10 EAEn eta %12 Estatuan) eta trenaren (%2 EAEn eta %4 Estatuan) aukerari buruz galdetzean.

Autobusa da (%9) gehien erabiltzen den bigarren garraiobidea, nahiz eta aurreko urteekin alderatuz, EAEko indizeak eta Estatukoak behera egin dutela ikus daitekeen (%11-12).

El automóvil sigue siendo el medio de desplazamiento más utilizado por los vascos en sus viajes turísticos (78%) y, también este año, en una proporción ligeramente superior a la estatal (74%), que se compensa con el menor uso que hacen del avión (10% frente a 12%) y del tren (2% frente a 4%) en comparación al conjunto del Estado.

El autobús (9%) es el segundo medio más utilizado, aunque se aprecia una ligera reducción respecto a su índice tanto vasco y estatal de los años anteriores (11%-12%).

Euskal herritarrek egindako turismo-bidaietan erabilitako garraiobidea eta Estatuarekiko konparazioa. 2004
 Medio de desplazamiento utilizado en los viajes turísticos realizados por los vascos y comparación con el Estado. 2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

Ostatu mota Tipo de alojamiento

Turismo-bidaietan aukeratzen den ostatu-motari dagokionez, Familitur-ek hamaika aukera aztertzen ditu. Zentzu horretan, ez dira gehiegi aldatu 2000-2004 laurtekoan euskal herritarren artean egindako aukerak, nahiz eta gauzak aldatzen hasiko direla dirudien.

Esanak esan, gutxiagotzen ari da senide edo lagunaren etxebizitzak erabiltzen dituzten bidaiarien proportzioa, bai eta partikularrei alokatutako etxebizitzak aukeratzen dituztenena ere; horrekin batera, zertxobait gora egin du etxebizitza propioa dutenen portzentajeak, bai eta hotelak eta agentzian alokatutako etxebizitzak aukeratzen dituztenenak. Bien bitartean, egonkortzen ari da landaturismoa zein kanpina/karabana aukeratzen duten bidaiarien proportzioa.

2004ko emaitzei erreparatuz, senide zein lagunaren etxebizitza da turismo-bidaietan erabiltzen den ostatu-mota nagusia, bai euskaldunek egindako bidaien kasuan, bai Estatuko bidaiariek egindakoen kasuan (%38), eta ondoren sailkatu dira hotelak; azken horien kasuan, proportzio altuagoak erregistratu dira Euskadin (%31) Estatuan baino (%29).

Respecto a los alojamientos posibles para los viajes turísticos, Familitur contempla hasta once alternativas posibles, cuyo orden de importancia según grado de utilización por parte de la población vasca apenas ha experimentado variación en 2000-2004, aunque se aprecian algunos signos de evolución en el cuatrienio.

Este apunte o esbozo de tendencias se podría resumir en una estabilidad a la baja de la vivienda de familiares o amigos así como del alquiler a particulares, compensada con una tendencia ligeramente al alza de la vivienda propia, de los hoteles y del alquiler a agencia. Mientras, tanto el turismo rural como el camping/caravana, muestran signos de mayor estabilidad.

Referido a 2004, la vivienda familiar o de amigos se mantiene como primera solución de alojamiento para los viajes turísticos, tanto entre los realizados por los vascos como en el Estado (38%), seguida por los hoteles, a los que se recurre ligeramente más en Euskadi (31%) que en el Estado (29%).



Euskal herritarrek egindako bidaietan aukeratutako ostatu-mota. Estatuarekiko konparazioa. 2003-2004. (%)

Tipo de alojamiento utilizado en los viajes realizados por los vascos. Comparación con el conjunto del Estado. 2003-2004. (%)

	Euskal herritarrek egindako bidaiak Viajes realizados por los ciudadanos vascos						Estatuan egindako bidaiak Viajes realizados en el conjunto del Estado					
	Guztira / Totales		Turismokoak Turísticos		2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak Corta duración a 2ª residencia		Guztira / Totales		Turismokoak Turísticos		2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak Corta duración a 2ª residencia	
	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004	2003	2004
Ostatu-mota / Tipo de alojamiento	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Hotelak eta antzekoak / Hoteles y similares	9,9	11,9	27,8	30,6	-	-	10,0	10,4	28,6	29,4	-	-
Turismogunea / Complejo turístico	0,1	0,1	0,3	0,2	-	-	0,1	0,2	0,4	0,5	-	-
Kanpina/karabana / Camping/caravana	1,8	1,5	5,2	4,0	-	-	2,0	1,7	5,8	4,8	-	-
Jabetzanitzeko etxebizitza / Vivienda multipropiedad	0,1	-	0,2	-	-	-	-	0,1	0,1	0,2	-	-
Etxebizitza propioa / Vivienda propia	42,2	40,7	15,3	15,9	57,2	56,6	39,5	44,7	12,4	12,7	53,9	62,3
Partikularrei alokatutako etxebizitza / Vivienda alquiler a partic.	2,3	2,3	4,7	3,1	1,0	1,9	4,0	4,3	7,0	6,1	2,4	3,3
Agentziari alokatutako etxebizitza / Vivienda alquiler a agencia	0,9	1,3	2,5	3,3	-	0,0	0,8	0,7	2,2	1,9	-	0,0
Famila edo lagunaren etxebizitza / Vivienda familiar o amigos	40,6	40,0	38,4	37,6	41,8	41,6	41,4	35,6	37,2	37,8	43,6	34,4
Espezializatuak / Especializados	0,4	0,3	1,2	0,7	-	-	0,7	0,4	2,1	1,2	-	-
Landa-etxea / Casa rural	1,3	1,2	3,7	3,0	-	-	1,1	1,2	3,0	3,4	-	-
Bestelakoa / Otro tipo	0,3	0,7	0,8	1,7	-	-	0,4	0,7	1,1	2,1	-	-

Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T. 2003-2004.

Senide eta lagunaren etxebizitzak eta hotelak dira Estatuaren barruan egiten diren turismo-bidaietan erabiltzen den ostatu-mota nagusia. Atzerrira egiten diren bidaietan gehiagotan erabiltzen da hotela.

Las viviendas de familiares y amigos y los hoteles se mantienen como principales soluciones de alojamiento en los desplazamientos turísticos dentro del Estado. En el extranjero aumenta el uso de los hoteles.

Gehien erabiltzen den hirugarren ostatu-mota etxebizitza propioa da, baina aurretik aipatutakoak baino erabilera baxuagoa du. Horrela, turismo-bidaiaren %16tan erabili da etxebizitza propioa (%13 Estatuan). Gainerako aukerak (landa-turismoa, kanpina/karabana edo agentziatan alokatutako etxebizitza) turismo-bidaiaren %3-4tan erabili dira.

Horrela, aukeratutako noranzkoaren arabera aldatu egiten da erabiliko den ostatu-mota. Ildo horretan, euskaldunek atzerrira egiten dituzten bidaietan gehiagotan erabiltzen dute hotela (%57) eta gutxiagotan senide edo lagunaren etxebizitza (%18) eta agentzia batean alokatutako etxebizitza (%9) eta kanpina/karabana (%8).

Estatuan, hazkunde nabarmena ezagutu du senideen etxebizitzaren erabilerak Gaztela eta Leonera egindako bidaietan (%61), bai eta EAERA egindakoetan ere (%62). Bien bitartean, oporretarako noranzko tipikoen kasuan, hala nola Valentziako Erkidegoa edo Kantabria, erabilera handia lortu du etxebizitza propioaren zein jabetza anitzeko etxebizitzaren erabilerak (%26 eta %31 hurrenez hurren). Oporrak igarotzeko aukeratzen diren beste noranzko batzuetan, hala nola Katalunia edo Andaluzia, gehiagotan aukeratzen dira hotelak (%45 eta %37 hurrenez hurren), edo kanpina (Katalunia) eta etxebizitza alokatuak (Andaluzia).


Como tercera solución de alojamiento, pero con menor grado de implantación que las anteriores, aparece la vivienda propia, utilizada en un 16% de los desplazamientos turísticos (13% en el Estado). El resto de las alternativas (turismo rural, camping/caravana o alquiler a agencias) se utilizan entre un 3% y un 4% de los viajes turísticos.

Según destinos, varía el tipo de alojamientos utilizado. Así, en los viajes al extranjero los vascos utilizan más los hoteles (57%) que la vivienda de familiares y amigos (18%) y más también la vivienda alquilada a una agencia (9%) y el camping/caravana (8%).

Dentro del Estado, el uso de viviendas familiares aumenta considerablemente en los viajes a Castilla y León (61%) y al propio País Vasco (62%) mientras en los destinos considerados más vacacionales como Comunidad Valenciana o Cantabria destaca sobre todo el uso de vivienda propia o en multipropiedad (26% y 31% respectivamente). En otros destinos vacacionales de cierta relevancia, como Cataluña o Andalucía, se recurre más a hoteles (45% y 37% respectivamente) así como a campings (Cataluña) y a viviendas alquiladas (Andalucía).


Euskal herritarrek erabilitako ostatu-mota bidaia-motaren arabera eta Estatuarekiko konparazioa. 2004
Alojamiento utilizado por los vascos según tipo de viaje y comparación con el Estado. 2004

Turismokoak / Turístico



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

2. bizilekua / 2ª vivienda



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

Madrilera egiten diren bidaien kasuan (negozioak eta lanak eragindako bidaiak), askotan aukeraten dira hotelak (% 51); Extremaduran, berriz, gehiagotan erabiltzen da etxebizitza propioa (% 43).

Amaitzeko, landa-turismoko establezimenduei erreparatuz, euskal herritarrek Espainia Berdeko erkidegoetara eta Nafarroara egiten dituzten bidaietan aukeratu dituzte, batez ere, mota horretako ostatuak. Erabilera-tasa altuenak Asturiasera egindako bidaietan erregistratu dira (% 19), baina tasak %7-5era behera egiten du aukeratutako noranzkoa Kantabria, Nafarroa edo Galizia denean.

Madrid, en cuanto destino de negocios y trabajo, destaca también por una mayor utilización del hotel (51%) mientras Extremadura es el destino donde más se utiliza la vivienda propia (43%).


Finalmente y en cuanto a los alojamientos de turismo rural, la población vasca los utiliza sobre todo cuando viaja a las CC.AA. de la España Verde y a Navarra. La máxima utilización se da en los viajes a Asturias (19%), y desciende a un 7%-5% cuando el destino es Cantabria, Navarra o Galicia.



2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak

Viajes de corta duración a 2ª residencia

2. bizilekua duten familiak eta ez dutenak. 2004. Euskadi eta Estatuak
Hogares según tengan o no acceso a 2ª residencia. 2004. Euskadi y Estado



Iturria/Fuente: Instituto de Estudios turísticos. Movimientos turísticos de los Españoles (Familitur). 2000-2002.

Euskal Autonomia Erkidegoko familien % 36k etxebizitza partikular batera jo dezakete bidaiatzen dutenean, eta Madrilgo familiak bakarrik hobetu dute emaitza hori (% 44).

El 36% de los hogares del País Vasco pueden acceder a una vivienda particular durante la realización de un desplazamiento. Esta circunstancia sólo la mejoran los hogares de Madrid (44%).

Familitur-ek emandako definizioen arabera, bigarren bizileku bat aipatzean, bidaiak egiteko etxebizitza partikular bat ulertu behar da; ondoren zehaztuko da etxebizitza propioa, alokatua edo dohainik utzitakoa ote den.

Horren arabera, 2004an EAeko familien % 36k zuten bigarren bizileku bat eskuratzeko aukera, hau da, Estatuko batez bestekoa (%28) baino zortzi portzentaje-puntu gehiago (28%).

Autonomia-erkidegoen arabera, Madril ondoren (%44) EAEn erregistratu dira aukera horren aldeko portzentaje altuenak, eta ondoren geratu dira Asturias (% 34), Errioxa (%32), Aragoi (%31) eta Katalunia (% 29).


El acceso a una segunda residencia es definido por Familitur como la posibilidad de utilizar una vivienda particular durante la realización de un desplazamiento y, sólo en un segundo momento, determinará si se trata de una vivienda propia, alquilada o cedida gratuitamente.

Según esta consideración, en 2004 el 36% de los hogares del País Vasco pueden acceder a una segunda residencia, en una proporción ocho puntos porcentuales por encima del promedio estatal (28%).

Por CC.AA. el País Vasco es, tras Madrid (44%), la que más reconoce esta posibilidad seguida por Asturias (34%), la Rioja (32%), Aragón (31%) y Cataluña (29%).



Bigarren bizilekua duten familiak. Autonomia Erkidegoen arabera. 2004
Hogares con acceso a 2ª residencia por CC.AA. 2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

Bigarren bizilekuen artean jabetzako etxebizitzak, alokairukoak edo lagatakoak bereizten dira, eta euskal familien %51k aitortu dutenez, dohainik utzi dieten etxebizitza bat erabiltzeko aukera dute; %48ren kasuan etxebizitza propioak dira.

Bigarren bizilekua eskuratzeko aukera dutela adierazi duten familien portzentaje hori autonomia-erkidegoen artean baxuena da a priori, eta Andaluziak (%47) eta bi Gaztelek (%46) bakarrik lortu dute gainditzea.

Hala ere, familia guztiak batera hartuta, bigarren bizileku propioa erabiltzeko familia gehien dituen hirugarren erkidegoa da EAE (%17,3), Madril (%24) eta Aragoi (%19) ondoren.

Diferenciando esa vivienda a la que se puede acceder entre vivienda en propiedad, en alquiler o cedida, resulta que un 51% de los hogares vascos reconoce que se trata de una vivienda cedida gratuitamente mientras otro 48% accede a una propia.

Este nivel de acceso a una segunda vivienda propia entre los hogares que previamente han reconocido el acceso, resulta a priori de los más bajos en el conjunto de las CC.AA., sólo superado por Andalucía (47%) y las dos Castillas (46%).

Sin embargo, referido al total de hogares convierte al País Vasco en la tercera Comunidad con más porcentaje de hogares con acceso a una segunda vivienda propia (17,3%), tras Madrid (24%) y Aragón (19%).



Bigarren bizilekuaren kokapena aztertzean, aurtien ere nabarmen geratu da bi autonomia-erkidegotan kokatzen direla gehienak, hain zuzen: Euskadi (%27) eta Gaztela eta Leon (%26); ondoren daude Kantabria (%11), Extremadura (%7,5), Valentiako Erkidegoa (%6) eta Errioxa (%5).

Bizkaiko lurralde historikoari dagokionez, Gaztela eta Leongo erkidegoak (%38) gainditu du Euskadi, Gaztela eta Leon baita bidaia horien noranzko nagusia eta, ildo horretan, bereziki azpimarragarria da Burgos; era berean, gero eta gehiagotan aipatzen da Kantabria (%8).


Udalerrriak kontuan hartuta, bereziki aipagarriak dira Castro-Urdiales, Laredo eta Noja Kantabrian, eta Briviesca, Medina de Pomar eta Villarcayo-ko Merindadea Burgosen.

Cuando se analiza la ubicación de esas segundas residencias, un año más se pone de manifiesto su tendencia a la concentración en dos Comunidades Autónomas. Son Euskadi (27%) y Castilla-León (26%) seguidas por Cantabria (11%), Extremadura (7,5%), Comunidad Valenciana (6%) y La Rioja (5%).

Por Territorios Históricos de residencia en Bizkaia, Euskadi es superada por Castilla-León (38%) que constituye el primer destino de estos viajes, y donde destaca Burgos; aumentan también las referencias a Cantabria (8%).

Atendiendo a los municipios, destacan por las menciones recibidas Castro-Urdiales, Laredo y Noja en Cantabria y, en Burgos, Briviesca, Medina de Pomar y la Merindad de Villarcayo.

Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren 2. bizilekuaren kokapena. 2004
CC.AA. en la que se ubican las segundas residencias a las que tienen acceso los hogares del País Vasco. 2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

Gipuzkoan gehien aipatu diren erkidegoak dira: EAE (%20), Gaztela eta Leon (Salamanca) eta Extremadura (%17 bakoitzak); ondoren geratu dira Valentiako Erkidegoa (%11) –Alacant– eta Nafarroa (%8).

Araban, Euskadiren ondoren (%28), Gaztela eta Leon (Burgos) eta Errioxa (%12) dira gehien aipatu diren lekuak.


Euskadin dauden etxebizitzien kokapenari dagokionez, kontuan hartu behar da lurralde bakoitzean bertako herriak aipatzen direla gehienetan, eta, horien artean, bereziki azpimarragarriak dira Gasteiz Araban, Donostia eta Zarautz Gipuzkoan eta Bizkaiko kostaldeko Plentzia, Sopela eta Bakio herriak eta Gernikako ibaiadarreko herriak Bizkaian.

En Guipuzkoa, las CC.AA. más señaladas además del propio País Vasco (20%), son tanto Castilla-León (Salamanca) como Extremadura (17% cada), seguidas por la Comunidad Valenciana (11%) –Alicante– y Navarra (8%).

En Álava, tras Euskadi (28%) aparecen como las más señaladas Castilla-León (Burgos) y la Rioja (12%).

Referido a la localización de las viviendas ubicadas en Euskadi, cabe señalar que, en cada Territorio, se señalan mayormente localidades del mismo territorio destacando Vitoria-Gasteiz en Álava, Donostia-San Sebastián y Zarautz en Gipuzkoa, y los municipios de la costa vizcaína como Plentzia, Sopelana, Bakio, y los de la ría de Gernika, en Bizkaia.

Euskal herritarrek 2. bizilekura egindako iraupen laburreko bidaien xede-erkidegoa. 2004
CC.AA. de destino de los viajes de corta duración a 2ª residencia realizados por los vascos. 2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

2.bizilekura egindako iraupen laburreko bidaien ezaugarriak. 2004. (%)

Características de los viajes de corta duración a segunda residencia. 2004. (%)

2.bizilekurako iraupen laburreko bidaiak Viajes corta duración a 2ª residencia		
Euskadi norako bezala / Destino Euskadi	2.302.228	100,0
Euskal herritarrek egindakoak / Realizados por ciudadanos vascos	1.890.315	82,1
Beste estatuko herritarrek egindakoak / Realizados por resto ciudadanos del Estado	411.913	17,9
Euskal herritarrek egindakoak / Realizados por los ciudadanos vascos	5.045.818	100,0
Euskadi barruan / Dentro de Euskadi	1.890.315	37,5
Beste Estatuko AA.EE.tara / A otras CC.AA. del Estado	3.085.395	61,1
Atzerrira / Al Extranjero	70.108	1,4
Ezaugarriak / Características	Bidaiak / Viajes	
	Euskal herritarrek egindakoak Realizados por los ciudadanos vascos	Euskadi norako bezala Destino Euskadi
Bidaiak guztira / Total viajes	5.045.818	2.302.228
Xede-erkidegoa / Comunidad Autónoma	100,0	100,0
Aragoi / Aragón	1,8	4,0
Asturias / Asturias	2,6	-
Kantabria / Cantabria	21,3	0,8
Gaztela eta Leon / Castilla y León	19,9	2,0
Extremadura / Extremadura	3,1	-
Nafarroa / Navarra	4,0	8,9
Euskadi	38,0	82,1
Errioxa / La Rioja	5,1	0,8
Madril / Madrid	0,2	0,7
Beste hainbat / Otros	4,0	0,7
Arrazoiak / Motivos	100,0	100,0
Familia bisitatzea / Visitas familiares	26,8	44,4
Aisialdia / Ocio / recreo	70,7	51,0
Beste hainbat / Otros	2,5	4,5
Ostatu-mota / Tipo de alojamiento	100,0	100,0
Jabetzanitzeko etxebizitza / Vivienda en propiedad	56,6	49,1
Familia/lagunen etxebizitza / Vivienda familiares / amigos	41,6	50,8
Partikularrei alokatutako etxebizitza / Vivienda alquilada particulares	1,9	0,1

Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T. 2003-2004.





EAEn kokatutako bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera duten euskal familiak horrelako aukera dutela aitortu duten Estatuko familien %70 dira. Gainerako %30 beste autonomia-erkidego batzuetako familiak dira, hala nola Gaztela eta Leon (%6,5), Madril (%3,7), Nafarroa (%3,3), Andaluzia (%2,9), Aragoi (%2,7) eta Valentziako Erkidegoa (%2,5).

Bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera bidaiatzea ahalbidetzen duen baldintza bat da zenbait kasutan. Lehen esan dena errepikatuz, 2004an euskal herritarrek 8,3 milioi bidaia egin zituzten, eta horietatik ia bost milioi (%61) bigarren bizilekurako bidaia laburrak izan ziren.

Aipatutako bost milioi bidaia labor horien noranzko nagusia EAE bera izan zen, 1,9 milioi bidaia egin zirelarik bertara (%38); gainerako 3,1 milioi bidaiak (%62) Kantabria (%21), Gaztela eta Leon (%20), Errioxa (%5) edo Nafarroara (%4) egin ziren.

Baina euskaldunek EAEn barruan egiten dituzten bidaia laburrez gain (1,9 milioi), beste 412.000 bidaia labor gehiago egin ziren EAera, batez ere Nafarroa (%9), Aragoi (%4) eta Gaztela eta Leondik (%2) etorritako bisitarien eskutik.

Hortaz, bigarren bizilekurako 2,3 milioi bidaia labor jaso zituen Euskadik, hain zuzen EAera egindako bidaia guztien %70.

Erdia baino gehiago (%51) aisialdia edo oporrak igarotzeko egindako bidaiak dira; %44 senideak edo lagunak bisitatzeko, baina beste autonomia-erkidego batzuetako herritarrek egiten dituzten bidaiei erreparatu, bidaien %68 senide edo lagunak bisitatzeko dira eta %32 aisialdikoak.

Los hogares vascos con acceso a segundas residencias ubicadas en Euskadi representan el 70% de todos los hogares del Estado que han reconocido ese acceso a viviendas localizadas en el País Vasco. El 30% restante son hogares de otras CC.AA. como Castilla-León (6,5%), Madrid (3,7%), Navarra (3,3%), Andalucía (2,9%), Aragón (2,7%) y la Comunidad Valenciana (2,5%).

La posibilidad de acceder a una segunda vivienda constituye una condición previa que facilita la posterior realización de desplazamientos. Como se ha mencionado anteriormente, en 2004, los residentes en el País Vasco realizaron en total 8,3 millones de viajes, de los cuales casi cinco millones (61%) eran viajes cortos a segunda residencia.

El primer destino de estos cinco millones de viajes cortos realizados, fue el propio País Vasco que recibió 1,9 (38%) mientras otros 3,1 millones (62%) se dirigieron a otras CC.AA. como Cantabria (21%) y Castilla y León (20%), La Rioja (5%) o Navarra (4%).

Pero además de los viajes cortos que los vascos realizaron dentro del propio País Vasco (1,9 millones), éste recibió otros 412.000 viajes cortos más, procedentes, sobre todo, de residentes en Navarra (9%), Aragón (4%) y Castilla León (2%).

Por tanto Euskadi recibió 2,3 millones de viajes cortos a 2ª residencia que representan el 70% de todos los viajes recibidos.

Algo más de la mitad (51%) se reciben por motivos de ocio o vacaciones y un 44% para visitar a familiares y amigos, pero si los protagonizan residentes en otras CC.AA. la visita a familiares supone un 68% de los desplazamientos y el ocio, un 32%.

Euskal Autonomia Erkidegoa turismo-norako bezala

El País Vasco como destino turístico

EAEk Estatuaren baitan duen garrantzia

Importancia del País Vasco en el marco del Estado

Estatuko biztanleek 132,9 milioi bidaia egin zituzten 2004an; horietatik 127,8 (%96) Estatuko hainbat autonomia-erkidegotara egin ziren eta gainerako %4 atzerriko herrialdeetara.

Bidaia-motari dagokionez, 127,8 milioi barne-bidaien artetik %33 turismo-bidaia ziren eta %67 bigarren bizilekurako bidaia laburrak.

Los residentes en el Estado realizaron en 2004 132,9 millones de viajes, de los que 127,8 (96%) tuvieron como destino las diferentes CC.AA. y el 4% restante, países del extranjero.


Por tipo de viaje, el 33% de los 127,8 millones de viajes internos fueron turísticos y el 67% viajes cortos a segunda residencia.

2004an Estatuan egindako 127,8 milioi bidaien artetik 3,3 milioi

Euskadira egin ziren (% 2,6); horietatik % 30 turismo-bidaia ziren eta % 70 bigarren bizilekurako bidaia laburrak.


De los 127,8 millones de viajes realizados en el Estado en 2004, Euskadi recibió 3,3 millones de viajes (2,6%), de los cuales el 30% fueron turísticos y el 70% cortos a segunda residencia.

Autonomia Erkidegoen garrantzia turismo-norako gisa.
Turismo-bidaia, 2004
Importancia CC.AA. como destino turístico.
Viajes turísticos, 2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), I.E.T.

Autonomia Erkidegoen garrantzia turismo-norako gisa.
2. Bizilekurako iraupen laburreko bidaia, 2004
Importancia CC.AA. como destino turístico.
Viajes corta duración a 2ª residencia, 2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), I.E.T.



Estatua bere osotasunean hartuta, Euskadik emaitzak hobetu ditu bigarren bizilekurako bidaien noranzko gisa. 2000-2004 laurtekoan % 35 gehiago izan dira EAERA egindako mota horretako bidaiak (+% 11 Estatuan).

Euskadi refuerza su posición en el Estado, como destino de viajes cortos a segunda residencia. En el cuatrienio 2000-2004 ha recibido un 35% más de viajes de este tipo (+11% en el Estado).

Jarduera-mailari erreparatuz, 2000-2004 laurtekoan +%7ko hazkundera lortu du bidaiak-kopuruak, nahiz eta gorakada handiagoa ezagutu duten bidaiak laburrek (+%10,5), turismo-bidaiak baino (+%0,8).

Estatuko bidaiak guztiak kontuan hartuta, Espainia Berdera –Asturias, Kantabria, Euskadi eta Galiziak osatutako esparru turistikoa– egin dira 17 milioi bidaiak, hau da, bidaiak guztien %13,3, eta laurteko honetan Estatuko hobekuntza (+%8,8) gainditu da; ildo horretan, bigarren bizilekura egindako bidaiak laburren hazkundera ekarri du hobekuntza (+%17 2000 eta 2004 artean), turismo-bidaiak behera egin baitute (-%5,3).

EAEko datuei erreparatuz, 2004an 3,3 milioi bidaiak egin dira bertara, hortaz, Estatua bere osotasunean hartuta, %2,6ko kuota lortu du EAEk (%2,2 2000. urtean). Gainera, Espainia Berdeak lortu du hazkunderik handiena laurtekoan (+%25), eta hazkundera horren eragile nagusiak bigarren bizilekura egindako bidaiak izan dira (+%35); turismo-bidaiak erregistratutako tasa neurritsuagoa da (+%7,3), Espainia Berdeko positiboena izan bada ere.

Este nivel de actividad supone un incremento del +7% de desplazamientos en el cuatrienio 2000-2004, aunque el aumento es más relevante en los viajes cortos (+10,5%) que en los turísticos (+0,8%).

Del total de viajes del Estado, la España Verde –ámbito turístico promocional formado por Asturias, Cantabria, Euskadi y Galicia– ha acogido 17 millones de viajes, es decir un 13,3% de los realizados y experimenta en el cuatrienio una mejora superior a la estatal (+8,8%) aunque gracias, exclusivamente, al incremento de los viajes cortos a segunda residencia (+17% entre 2000 y 2004) porque los turísticos descienden un -5,3%.

Centrándose sólo en el País Vasco cabe decir que, en 2004, ha sido destino de 3,3 millones de viajes, lo que le otorga una cuota del 2,6% en el conjunto del Estado, (2,2% en 2000). Es, además, la Comunidad de la España Verde que más crece en el cuatrienio (+25%), y lo hace principalmente por los viajes cortos a segunda residencia (+35%) mientras los turísticos presentan una tasa más contenida (+7,3%), aunque, la más positiva de la España Verde.



EAEko bezeroen jatorrizko autonomia erkidegoa eta Estatuarekiko konparazioa. 2004. (%)

CC.AA. de procedencia de los clientes del País Vasco y comparación con el conjunto del Estado. 2004. (%)

	Euskadi norako bezala duten bidaiak Viajes con destino Euskadi			Estatua norako bezala duten bidaiak Viajes con destino Estado		
	Guztira / Totales	Turismokoak Turísticos	2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak Corta duración a 2ª residencia	Guztira / Totales	Turismokoak Turísticos	2. bizilekurako iraupen laburreko bidaiak Corta duración a 2ª residencia
Bidaiak guztira / Total viajes	3.286.718	984.490	2.302.228	127.815.500	42.520.400	85.295.100
Xede diren autonomia erkidegoak / CC. de destino						
Andaluzia / Andalucía	2,2	6,9	0,2	13,5	14,3	13,1
Aragoi / Aragón	3,8	3,3	4,0	3,8	3,9	3,8
Asturias / Asturias	0,3	1,1	-	2,8	2,5	2,9
Balearrak / Baleares	0,1	0,3	-	1,6	1,9	1,4
Kanariak / Canarias	0,1	0,4	-	2,4	2,9	2,2
Kantabria / Cantabria	1,0	1,4	0,8	0,9	0,9	0,9
Gaztela-Mantxa / Castilla la Mancha	0,3	1,0	-	3,7	4,2	3,4
Gaztela eta Leon / Castilla y León	3,4	6,8	2,0	6,2	0,6	9,3
Katalunia / Cataluña	2,3	7,6	-	16,2	16,7	15,9
Valentziako Erkidegoa / Com. Valenciana	1,8	5,9	0,1	11,1	9,5	12,0
Extremadura / Extremadura	0,4	1,3	-	2,0	2,3	1,8
Galizia / Galicia	1,7	4,8	0,4	4,9	3,7	5,5
Madril / Madrid	6,9	21,2	0,7	20,4	19,4	20,9
Murtzia / Murcia	0,0	0,0	-	2,2	2,5	2,1
Nafarroa / Navarra	8,0	5,8	8,9	1,3	1,6	1,2
Euskadi	66,1	28,7	82,1	6,2	6,8	5,9
Errioxa / La Rioja	1,6	3,4	0,8	0,8	0,8	0,7
Guztira gau-kopurua / Total pernoctaciones*	12.057	7.600	4.457	551.923	388.291	163.632
Jatorrizko autonomia erkidegoa / CC. de procedencia						
Andaluzia / Andalucía	5,1	7,9	0,3	12,9	12,7	13,5
Aragoi / Aragón	3,4	3,0	4,1	3,6	3,5	3,8
Asturias / Asturias	0,2	0,3	-	2,8	2,6	3,2
Balearrak / Baleares	0,1	0,2	-	1,8	2,0	1,3
Kanariak / Canarias	0,2	0,3	-	2,9	3,0	2,4
Kantabria / Cantabria	0,6	0,4	1,0	0,8	0,7	1,0
Gaztela-Mantxa / Castilla la Mancha	0,3	0,5	-	3,5	3,7	3,2
Gaztela eta Leon / Castilla y León	3,1	3,9	1,9	6,0	5,9	6,4
Katalunia / Cataluña	3,8	6,0	-	16,1	16,3	15,5
Valentziako Erkidegoa / Com. Valenciana	3,1	4,8	0,2	10,9	10,5	11,9
Extremadura / Extremadura	1,1	1,8	-	1,8	1,8	1,8
Galizia / Galicia	1,5	2,3	0,2	3,5	2,8	5,3
Madril / Madrid	9,1	13,9	0,9	21,2	21,3	21,1
Murtzia / Murcia	0,0	0,0	-	2,8	3,1	1,9
Nafarroa / Navarra	4,6	3,0	7,5	1,3	1,4	1,1
Euskadi	61,7	49,3	82,9	7,5	8,0	6,0
Errioxa / La Rioja	1,9	2,4	1,0	0,6	0,6	0,7

* milakotan / en miles

Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T. 2004.

Bidaiaren jatorrizko autonomia erkidego nagusiak

Principales CC.AA. de procedencia de los viajeros

EAEra egindako bidaien %66 (3,3 milioi) EAEko biztanleek egin dituzte. Aurten, berriro ere, EAEn barruan egindako bidaien protagonista nagusiak dira euskal herritarrek eta, horrez gain, 2000. urtean baino pisu handiagoa lortu dute (%63).

Ondoren, distantzia handira, nafarrak (%8), madrildarrak (%7), aragoiarrak (%4) eta gaztela eta leondarrak (%3,4) sailkatu dira. Katalanak, andaluziarrak bezala, ez dira %2ra iritsi.

El 66% del total de viajes recibidos (3,3 millones) están protagonizados por los propios residentes en el País Vasco que, un año más, se erigen en los principales responsables de los desplazamientos internos y, además, con un mayor peso que en 2000 (63%).

A continuación, pero a considerable distancia, aparecen los navarros (8%), los madrileños (7%), los aragoneses (4%) y los castellano-leoneses (3,4%) mientras que los catalanes al igual que los andaluces, apenas superan el 2%.

Estatuaren barruan egindako bidaien artean EAEra egindako gehienak euskal herritarrek egindako bidaiak dira (% 66).

De los viajes realizados dentro del Estado, los que recibe el País Vasco proceden en su mayoría (66%) de los propios residentes.

EAEko ohiko bezeroek (katalanek eta gaztela eta leondarrek) egindako turismo-bidaiek behera egin badute ere, gora egin du nabarmenki (+%21) madrildarrek egindako turismo-bidaien kopuruak.

Frente al descenso de viajes turísticos protagonizados por clientes tradicionales del País Vasco como son los catalanes y los castellano-leoneses, aumentan considerablemente (+21%) los realizados por madrileños.


Bidaia-motaren arabera, ohikoa den moduan, agerpen handia dute euskal herritarrek (%82) bigarren bizilekura egiten diren bidaia laburren kasuan. Beste autonomia-erkidego batzuetatik iristen diren bidaiariei dagokienez, berriz, Euskadi bisitatzen duten nafarrek (%9), Aragoiko biztanleek (%4) eta Gaztela eta Leongoek (%2) gainerako autonomia-erkidego-etakoek baino agerpen handiagoa dute, izan ere, azken horien agerpena urria da.

Turismo-bidaiak aztertzean, alabaina (EAEra egindako guztien %30), egoera erabat aldatzen da: euskaldunek egindako bidaiak dira guztien %29 eta Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetako bidaiariek egindakoak %71.

Distinguiendo por tipo de viaje y como viene siendo habitual, la presencia de los vascos se generaliza (82%) en los viajes cortos a segunda residencia mientras que de otras CC.AA. sólo tienen un cierto peso los viajes procedentes de los navarros que visitan Euskadi (9%), los procedentes de Aragón (4%) y de Castilla-León (2%) porque del resto de las CC.AA. la presencia es testimonial o inexistente.

Sin embargo, cuando se trata de los viajes turísticos (30% de los recibidos) la situación se invierte de tal manera que los procedentes de los vascos suponen un 29% frente a un 71% que tienen como protagonistas viajeros de otras CC.AA. del Estado.

Euskadi norako gisa. Bisitarien jatorrizko Autonomia Erkidego nagusienak. Euskadi eta Estatua. Turismo-bidaiak. (%). 2004
Euskadi como destino: Principales CC.AA. de procedencia de los visitantes. Viajes turísticos. %2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

Garrantziaren arabera, 2004an EAEko bezero nagusiak madrildarrak izan dira (turismo-bidaien %21), eta ondoren sailkatu dira katalanak (%7,6), andaluziarrak (%7) eta gaztela eta leondarrak (%7).

Aurreko urteetan lortutako datuekin alderatuz, gutxiago dira EAEra etortzen diren gaztela eta leondarrak eta katalanak, baina gehiago dira, aitzitik, madrildarrak, valentziarrak edo andaluziarrak.


Por orden de importancia, los principales clientes del País Vasco en 2004 son los madrileños (21% de viajes turísticos) seguidos a distancia por los catalanes (7,6%), los andaluces (7%) y los castellano-leoneses (7%).

Respecto a ediciones anteriores supone una fluctuación a la baja de clientes tradicionales del País Vasco como los castellano-leoneses y los catalanes compensado con el aumento de los madrileños, los valencianos o los andaluces.

Nahiz eta ugaritu egin den EAera etorritako madrildarren kopurua, ez da gauza bera gertatu EAEn igarotako gau-kopuruarekin; aitzitik, zertxobait gutxiago dira, nahiz eta gehiago diren euskaldunek egindakoak (%49).

La mayor afluencia de los madrileños no se ve correspondida, sin embargo, con un crecimiento proporcional de sus pernoctaciones; al contrario, disminuyen ligeramente mientras aumentan las que realizan los propios vascos (49%).

Euskadi igorlea-Euskadi xede-erkidegoaren arteko konparazioa. Bidaia-motaren arabera. (%). 2004
Comparación Euskadi emisor-Euskadi destino, según tipo de viaje. %.2004



Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

Turisten fidelitasuna

Fidelidad de los turistas

Fidelitasun handiko bezeroak ditu EAEk. Horrela, EAera etortzen diren bisitari asko (% 79) berriro etortzen dira gurera eta, gainera, bisita errepikatzeke asmoa agertzen dute (% 92).

Inguruko autonomia-erkidegoekin alderatuz Asturias, Kantabria edo Errioxa, gora egin du bisita errepikatzen duten pertsonen indizeak, baina etorkizunera begira, indize altuagoak lortu dituzte Asturias edo Galizian.

Teknologia berriei dagokienez, EAera iritsitako bidaien % 6tan Internet bidez lortu da informazioa, eta % 4tan sarean egin da bidaiaren erreserba.

Como destino, el País Vasco tiene una clientela fiel, que en una proporción elevada (79%) repite visita y que, además, piensa volver (92%).

Comparando con otras CC.AA. del entorno próximo como Asturias, Cantabria o la Rioja, supone un índice de repetición más elevado pero, a futuro, con menos disposición a volver que el que obtienen Asturias, o Galicia.

En cuanto a las nuevas tecnologías, en el 6% de los viajes recibidos se ha buscado información por Internet mientras un 4% de los mismos ha hecho la reserva por la red.

2004an EAera turismo-bidaia bat egin zuten 100 pertsonen artean 19k lehen aldiz bisitatzen zuten EAE; 27 Kantabrian edo 24 Asturiasen.

Por cada 100 personas que en 2004 estuvieron en el País Vasco en viaje turístico, 19 eran nuevos visitantes frente a 27 en Cantabria o 24 en Asturias.

EAEko bezeroen fidelitasuna (turismo-bidaiak) eta Estatuarekiko eta inguruko Autonomia Erkidegoekiko konparazioa. 2003-2004. (%)

Fidelidad de los clientes del País Vasco (viajes turísticos) y comparación con el Estado y CC.AA. del entorno. 2003-2004. (%)

	Bisitaldia errepikatzen du Repite visita						Bueltatzeko prest Dispuesto a volver					
	2003			2004			2003			2004		
	Bai / Sí	Ez / No	Ed / Ns	Bai / Sí	Ez / No	Ed / Ns	Bai / Sí	Ez / No	Ed / Ns	Bai / Sí	Ez / No	Ed / Ns
Guztira Estatu / Total Estado	77,1	19,2	3,7	77,2	20,1	2,7	92,2	3,3	4,5	93,0	3,6	3,4
Destino norako bezala / Destino Euskadi	77,8	19,9	2,3	78,9	19,3	1,9	94,8	2,0	3,2	92,4	2,9	4,7
Asturias nolako bezala / Destino Asturias	80,4	17,5	2,2	74,5	23,5	2,1	97,5	0,3	2,2	95,0	1,5	3,5
Kantabria nolako bezala / Destino Cantabria	78,4	17,2	4,4	68,8	26,7	4,5	93,8	1,7	4,5	92,5	4,8	2,6
Galizia nolako bezala / Destino Galicia	79,0	18,7	2,4	74,1	22,6	3,3	94,8	1,8	3,4	93,4	3,0	3,6
Nafarroa nolako bezala / Destino Navarra	78,1	18,7	3,2	69,0	26,1	4,9	93,9	2,4	3,7	90,7	2,9	6,4
Errioxa nolako bezala / Destino La Rioja	82,5	15,6	1,9	63,3	26,3	10,4	97,4	0,6	2,1	83,9	3,8	12,4

Iturria/Fuente: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T. 2003-2004.

Bidaien iraupena

Duración de los viajes

Iraupen laburreko turismo-bidaia asko egiten dira EAera (hiru egunekoak gehie-
nez).

Estatuan 1-3 egun arteko iraupena duten turismo-bidaiak bidaia guztien %38 dira; Euskadin, bertara egindako bidaien erdia dira, eta %32 4-7 egun arteko bidaiak dira. %18k bakarrik gaudituz dute astebeteko iraupena; Estatuan bidaia guztien %30ek irauten dute 4-7 egun artean.

Ondorioz, EAEko batez besteko egonaldia 7,7 egunekoa da eta 9,1 egunekoa, berriz, Estatukoa.

El País Vasco se caracteriza por recibir viajes turísticos de corta duración (máximo tres días).

